

EUSKAL AEKO KANPO-MERKATARITZAREN ESTATISTIKAK (KAMEE) 2010

2010. urtean Euskal AEko esportazioak %20,1 gehitu ziren

Inportazioak %24,3 hazi eta atzerriarekiko merkataritza-saldoak 2.289 milioiko superabita izan zuen

Euskal AEko esportazioak 17.545,9 milioi izan ziren 2010. urtean, aurreko urtean baino %20,1 gehiago; 2.939,7 milioi gehiago, Eustaten datuen arabera.

Euskal AEko Inportazioak 15.257,2 milioi izan ziren, aurreko urtean baino %24,3 gehiago; 2.979,2 milioi gehiago.

Bai esportazioek, bai inportazioek Euskal AEn dinamismo handiagoa izan dute **estatuak osotasunean** egindakoek baino. Espainian esportazioak %17,4 hazi ziren 2009ren aldean; Euskal AEn %20,1. Inportazio espainiarrak %14,2 hazi dira. %24,3 Euskal AEn.

1. taula.- Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. 2009-2010. Mila eurotan

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urtarrila-Abendua			Urtarrila-Abendua		
	2009	2010	Δ %	2009	2010	Δ %
EUSKAL AE						
GUZTIRA	14.606.210	17.545.883	20,1	12.277.945	15.257.171	24,3
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	1.235.722	1.520.187	23,0	4.196.568	5.310.018	26,5
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	13.370.487	16.025.696	19,9	8.081.377	9.947.153	23,1
ARABA						
GUZTIRA	3.552.042	4.285.684	20,7	1.925.875	2.260.134	17,4
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	3.208	5.168	61,1	15.514	24.606	58,6
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	3.548.834	4.280.516	20,6	1.910.362	2.235.528	17,0
BIZKAIA						
GUZTIRA	5.949.445	7.688.027	29,2	7.665.773	9.798.066	27,8
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	1.204.363	1.481.520	23,0	4.092.144	5.136.732	25,5
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	4.745.081	6.206.507	30,8	3.573.629	4.661.334	30,4
GIPUZKOA						
GUZTIRA	5.104.723	5.572.172	9,2	2.686.296	3.198.971	19,1
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	28.151	33.499	19,0	88.910	148.680	67,2
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	5.076.572	5.538.673	9,1	2.597.387	3.050.291	17,4

Iturria: Eustat. KAMEE: Euskal AEko kanpo-merkataritzako estatistikak

Euskal merkataritza saldoak (esportazioak ken inportazioak), 2010eko ekitaldian, 2.288,7ko milioiko superabita izan zuen, 2009an baino 39,6 milioi gutxiago. Esportazioen estaldura-tasa 2009ko %119tik 2010eko %115ra pasa da, lau puntuz okerrago.

Espainiako estaldura-tasa, %78; merkataritza-defizita, 52.000 milioi 2010ean.

Euskal AEko **Produktu ez-energetikoen merkataritza-saldoa** 6.079 milioi izan zen, 2009an 5.289 izan zelarik. Produktu ez-energetikoen estaldura-tasa jaitsi egin da, 2009ko %165,4tik 2010eko %161,1era.

Eremu geografikoen arabera, Euskal AEk Europako Batasunarekin duen merkataritza saldoan 2009ko 2.679,9 milioiko superabitetik 2010eko 3.442,6ra pasatu da, hazkunde nabarmena. Estaldura-tasa %143,5etik %146,6ra pasatu zen, ehuneko hiru puntuz baino gehiagoz egin du hobera.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren xede eta jatorri diren herrialde nagusiak. 2010. Mila eurotan

HERRIALDEAK	ESPORTAZIOAK	%	Δ % 10/09	HERRIALDEAK	INPORTAZIOAK	%	Δ % 10/09
Guztira	17.545.883	100,0	20,1	Guztira	15.257.171	100,0	24,3
Frantzia	3.020.386	17,2	22,6	Errusia	2.403.901	15,8	37,9
Alemania	2.420.108	13,8	20,3	Alemania	1.647.233	10,8	10,6
Ameriketako Estatu Batuak	1.092.471	6,2	12,5	Frantzia	1.560.936	10,2	26,1
Italia	1.086.690	6,2	32,5	Txina	879.546	5,8	23,5
Erresuma Batua	968.489	5,5	25,6	Iran	878.417	5,8	42,6
Portugal	819.823	4,7	16,7	Italia	876.259	5,7	-2,2
Belgika	710.703	4,1	28,3	Erresuma Batua	775.575	5,1	53,4
Txina	400.174	2,3	54,0	Herbehereak	615.415	4,0	52,9
Herbehereak	387.906	2,2	28,4	Belgika	413.906	2,7	9,8
Brasil	386.409	2,2	55,4	Ameriketako Estatu Batuak	388.208	2,5	4,1

Iturria: Eustat. KAMEE: Euskal AEko kanpo-merkataritzako estatistikak

Bost estatuk jaso dituzte Euskal AEtiko esportazioen ia erdia (%48,9): Frantziak (%17,2), Alemaniak (%13,8), Estatu Batuek (%6,2), Italiak (%6,2), Erresuma Batuak (%5,5). Inportazioekin ere bost estatutatik etortzen da %48,4: Errusia (%15,8), Alemania (%10,8), Frantzia (%10,2), Txina (%5,8), Iran (%5,8).

10 estaturen rankin hau orain dela urtebetekoarekin alderatuz gero, esportazioetan nabarmentzekoak dira Txinara (%54) eta Brasilera (%55,4) egindakoen hazkundeak. Inportazioez, hiru estatu nabarmentzen dira urte arteko alderaketan: Erresuma Batua (%53,4), Herbehereak (%52,9) eta Iran (%42,6). Oro har, 10 estatuetan aldakuntza positiboak daude bai esportazioetan, bai inportazioetan, Italian izan ezik, non inportazioak %2,2 jaitsi diren.

Datuak **produktuen (kontu-sailen)** arabera aztertuz gero, nabarmentzekoa da rankineko aurreneko 10ek esportazioen %37,8 hartzen dituztela. Haietako hiru *Garraio Materiala* muga-zergen sekziokoak dira: *Ibilgailuen parte eta osagarriak*, *Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak eta 5-10 pertsonako turismoek* esportazio guztien %15,4 hartzen dute; %17,9 izan zen 2009an. Rankineko bigarren postuan *Petrolio olioak* daude (%7,0), *Produktu mineralen* muga-zergen sekziokoak. Hirugarren, *Kautxuzko pneumatiko berriak* (%5,1), *Plastikoak eta kautxua* sekziokoak.

Metalak eta beren manufakturak bere kontu-sailatuko hiru sartzen ditu lehenengo hamarren artean: *Burdinazko edo altzairuzko Profil* (%2,3), *Tutu* (%2,2) eta *Barrak* (%2,1). *Aleatu gabeko Burdina edo altzairuzko profilek* ehuneko-hazkunde nabarmena (%78,3) izan dute nominalki 2009ren aldean. Aztertutako 10 kontu-sailetatik 7 %20 baino gehiago hazi dira nominalki 2009ko esportazio-kopuruen aldean, eta 5 %26 baino gehiago.

Euskal AEk esportatu dituen partida nagusiak. 2009-2010. Mila eurotan

PARTIDAK	2010	%	2009	Δ % 10/09
Guztira	17.545.205		14.606.173	20,1
8708. Ibilgailu automobilen parteak eta osagarriak	1.350.001	7,7	1.063.827	26,9
2710. Petrolio-olioak	1.228.533	7,0	1.006.570	22,1
4011. Kautxuzko pneumatiko berriak	892.169	5,1	660.978	35,0
8703. Turismo-autoak 5-10 pertsonentzat	679.310	3,9	527.253	28,8
8704. Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak	660.823	3,8	509.053	29,8
7216. Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	402.131	2,3	225.529	78,3
7304. Hodi eta profil baoak, sold. gabeak, burdina edo altzairuzkoak	388.241	2,2	410.611	-5,4
8481. Kanileriako gaiak eta hodieria	372.467	2,1	389.886	-4,5
7214. Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko barrak	369.407	2,1	310.330	19,0
8905. Faro-itsasontziak, draga-itsasontziak, ur gaineko dikeak, plataformak	278.638	1,6	272.114	2,4

Iturria: Eustat. KAMEE: Euskal AEko kanpo-merkataritzako estatistikak

Muga-zergen arabera inportazio ia guztiek (21etik 20k) izan dituzte ehuneko aldakuntza positiboak 2009ren aldean. Diru-kopururik handieneko sekzioen artean nabarmentzekoak dira *Metalen eta beren manufakturen* (%45,2) eta *Produktu mineralen* (%26,5) hazkundeak.

Hiru lurraldeetan, 2010ean, esportazioen bilakaera positiboa izan da, baina ez homogeneoa: %9,2 Gipuzkoan, %20,7 Araban eta %29,2 Bizkaian.

Inportazioetan ere ezberdina da hiru lurraldeen bilakaera, baina ez aurrekoan bezain handia. Bizkaian %27,8 hazi dira inportazioak, batez ere *Produktu mineralengatik* (%25,5) eta *Metalengatik eta haien manufakturengatik* (%57,5). Gipuzkoan %19,1 izan da hazkundera, baita ere *Metalengatik eta haien manufakturengatik*. Araban %17,4, *Metalen eta beren manufakturen* eta *Material elektrikoaren* hazkundeengatik.

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

Tel.: +34-945-01 75 13 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Kanpo merkataritzaren estatistiken gaineko prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Kanpo merkataritzaren estatistiken gaineko datu-bankua